

<p>www.pasaia.eus</p>	<p>2026ko Udal Aurrekontu proposamena</p> <p>Alkatearen memoria</p>	<p>IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Luz./Ext. 905 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia</p> <p>ALKATETZA alkatetza@pasaia.net</p> <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">T010100</p>
-----------------------	--	--

31.015.491 euroko aurrekontu-proposamena aurkeztu dugu 2026ko ekitaldirako, herritarren bizikaltatea hobetzea, zerbitzu publikoak indartzea eta gizarte-kohesioa lehenetsiz. Aurrekontu honek izaera sozial, jasangarri eta parte-hartzaile argia du, eta azken urteetan abiatutako politika publikoen jarraipena eta proiektu estrategikoen sendotzea ditu xede, Pasaia behar nagusiei erantzunez.

Aurrekontu honen oinarrietako bat udal zerbitzuen kalitatea hobetzea da. Horren adierazgarri, 500.000 euro bideratu dira zaharkituta dauden udal lanpostuen eguneraketa eta egokitzapenerako, giza baliabideak indartzeko eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko helburuekin.

Gizarte-politikek pisu berezia izango dute 2026ko aurrekontuetan, Pasaia zaintzaileago baten aldeko apustu argiarekin. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak 1,34 milioi euro jasoko ditu, % 23ko igoera jasota, zaintza beharrak dituzten pasaitarren arreta indartzeko eta zerbitzuko langileen beharrak aintzat hartuta. Antxoko Fini Rubio eguneko zentroa martxan jarriko da 93.000 euroekin, eta Oarsoaldeko bazterkeriaren kontrako eguneko arreta zentroak 200.000 euro jasoko ditu. Halaber, familietan esku hartzeko programak, gizarteratze ekimenak eta jubilatuen elkarten dirulaguntzak handituko dira.

Berdintasunaren arloan, Berdintasun Planaren jarraipenak % 12ko igoera izango du, Jabekuntza Eskolak % 9koa, eta LGTBI Bizitzak proiektuaren garapenerako 18.500 euro bideratuko dira. Horrez gain, berdintasunaren aldeko elkarten dirulaguntzak % 56 handituko dira, mugimendu feministarekin lankidetzaren sendotzearen.

Mugikortasunaren eta ingurumenaren arloan, Pasaia biziagarriago baten aldeko neurriak jasotzen ditu aurrekontuak. Aparkalekuaren Ordenantza indarrean jarri ondoren sortutako beharrei erantzunez, 9.200 euro bideratuko dira garabi-sistema kontratatuz, eta 15.000 euro Antxoko Luzuriaga eremuan aparkaleku berri bat egiteko proiektuaren idazketara. Bide publikoen mantentze-lanek jauzi nabarmena izango dute: zolaketa lanak % 50 handituko dira, zuhaitz eta landare berriak jartzeko % 33ko igoera aurreikusi da, eta lorezaintzak % 11ko hazkundea izango du. Horrez gain, 10.000 euroko partida berria sortu da hiri-altzarietarako, eta Donibaneko deposituaren gaineko magalen egonkortze lanetarako 120.000 euro jarriko dira. Portu-hiri interakziorako espazioen mantentze-lanetara, berriz, 500.000 eurotik gora bideratuko dira.

Etxebizitzaren arloan udalak 15.000 euro aurreikusi ditu ISM eraikinean etxebizitzak egiteko aukeren azterlana egiteko. Izarra proiektua eguneratzeko 100.000 euro bideratuko dira, eta Morales Oliver zein J.J. Otaegi eraikinen eraberritze-proiektuak idazteko 50.000 euro jarriko dira, udal jabetzako eraikinak berri eta gizarte zein etxebizitza erabilerearako prestatzeko.

Hirigintza eta jasangarritasunari dagokionez, Azkuene Goiako Baratze Parkearen bigarren fasea 200.000 euroekin gauzatuko da, eta Andonaegiko urbanizazioaren bigarren faserako 661.400 euro aurreikusi dira. Kanpitu urbanizatzeko proiektuaren idazketara 15.000 euro bideratuko dira, eta Correos inguruko orubearen urbanizaziorako 239.000 euro jarriko dira, espazio publiko berriak sortzeko. Agenda 2030aren garapenerako 149.000 euro bideratuko dira, % 82ko igoera jasota. Ingurumenaren arloan, Klima eta Energia Planerako 102.000 euro aurreikusi dira, % 15eko igoera jasota, eta 50.000 euro Lurdes Txiki auzoan ur beltzak eta euri-urak bereizteko.

Komunitatearen arloan, gazteen parte-hartzea eta aisialdia sustatzeko jarduerak % 9ko igoera izango dute, eta Haur eta Nerabeen Eskubideak Bermatzeko udal plana % 7 handituko da, Oinherri elkarteko bazkidetzaren mantentze-lanetarako. Parte-hartzeko Sail orokorrak % 50eko igoera izango du, elkarte eta eragileekin lanketa sendotzeko eta barruti batzarren proiektuak indartzeko.

Kirolari dagokionez, 35.000 euro bideratuko dira instalazioak hobetzera, 21.300 euro ekipamendu berrietara, kirol-turismo aktiboa sustatzeko partidak % 66 egingo du gora, eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko dirulaguntzak % 20 handituko dira.

Azkenik, kulturaren, euskararen eta ondarearen aldeko apustua indartu da. Ciriza eraikinaren birgaitzeari ekiteko 300.000 euro jarriko dira lehen lanetarako, eta 50.000 euro etorkizuneko proiektuak idazteko. Pasaia panorama kulturalaren diagnosirako 25.000 euro bideratuko dira, eta Luzuriagako birgaitzearen bigarren faseak 1,8 milioi euroko inbertsioa izango du. Euskararen normalizazioan, helduen euskalduntzeak % 32ko igoera izango du, eta herritarren aktibaziorako

lanketak % 41 handituko dira Oarsoaldea osora zabaltzeko.

Pasaiako Udalaren 2026ko aurrekontuek pertsonak, zaintza, jasangarritasuna eta komunitatea erdigunean jartzen dituen eredia islatzen dute. Zerbitzu publiko sendoagoekin eta proiektu estrategikoekin, Udal Gobernuak lanean jarraituko du Pasaia bidezkoago, biziago eta kohesionatuago bat eraikitzeko.

Teo Alberro Bilbao
Pasaiako alkatea

<p>www.pasaia.eus</p>	<p>2026ko Udal Aurrekontu proposamena</p> <p>Alkatearen memoria</p>	<p>IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Luz./Ext. 905 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia</p> <p>ALKATETZA alkatetza@pasaia.net</p> <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">T010100</p>
-----------------------	--	--

El Gobierno Municipal de Pasaia ha presentado la propuesta de presupuesto para el ejercicio 2026 por importe de 31.015.491 euros, priorizando la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía, el fortalecimiento de los servicios públicos y la cohesión social. Este presupuesto tiene un marcado carácter social, sostenible y participativo y tiene como objetivo la continuidad de las políticas públicas puestas en marcha en los últimos años y la consolidación de los proyectos estratégicos, respondiendo a las principales necesidades de Pasaia.

Una de las bases de este presupuesto es la mejora de la calidad de los servicios municipales. Prueba de ello es que se han destinado 500.000 euros para la actualización y adecuación de los puestos de trabajo municipales obsoletos, el refuerzo de los recursos humanos y la mejora de los servicios que se prestan a la ciudadanía.

Las políticas sociales tendrán un especial peso en los presupuestos de 2026, con una apuesta clara por un Pasaia más cuidador. El Servicio de Ayuda a Domicilio recibirá 1,34 millones de euros, con un incremento del 23 %, para reforzar la atención a las/los pasaitarras con necesidades de cuidado, y teniendo en cuenta las necesidades del personal del servicio. Se pone en marcha el centro de día Fini Rubio de Antxo con 93.000 euros y el centro de atención diurna contra la exclusión de Oarsoaldea con 200.000 euros. Asimismo, se incrementarán los programas de intervención familiar, las iniciativas de integración social y las subvenciones a asociaciones de jubilados.

En materia de igualdad, el seguimiento del Plan de Igualdad se verá incrementado en un 12 %, la Escuela de Empoderamiento en un 9 % y se destinarán 18.500 euros al desarrollo del proyecto LGTBI Bizitzak. Además, se incrementarán en un 56 % las subvenciones a asociaciones para la igualdad, estrechando la colaboración con el movimiento feminista.

En materia de movilidad y medio ambiente, el presupuesto recoge medidas a favor de un Pasaia más habitable. Atendiendo a las necesidades surgidas tras la entrada en vigor de la Ordenanza del Aparcamiento, se destinarán 9.200 euros a la contratación del sistema de grúa y 15.000 euros a la redacción del proyecto de un nuevo aparcamiento en la zona de Luzuriaga en Antxo. El mantenimiento de las vías públicas experimentará un salto significativo, con un incremento del 50 % en las labores de pavimentación, un incremento previsto del 33 % en la instalación de nuevos árboles y plantas y un incremento del 11 % en jardinería. Además, se crea una nueva partida de 10.000 euros para mobiliario urbano, destinándose 120.000 euros a la estabilización de laderas sobre el depósito de Donibane. En cuanto al mantenimiento de los espacios de interacción puertociudad, se destinarán más de 500.000 euros.

En materia de vivienda, el Ayuntamiento ha previsto 15.000 euros para realizar un estudio de alternativas para la construcción de viviendas en el edificio ISM. Para la actualización del proyecto Izarra se destinarán 100.000 euros y para la redacción de los proyectos de reforma de los edificios Morales Oliver y J.J. Otaegi se destinarán 50.000 euros, para la reforma de los edificios de propiedad municipal y su habilitación para usos sociales y residenciales.

En materia de urbanismo y sostenibilidad, la segunda fase del Parque de Huertas de Azkuene Goia se ejecutará con 200.000 euros, mientras que la segunda fase de la urbanización de Andonaegi se ha previsto en 661.400 euros. Se destinan 15.000 euros a la redacción del proyecto de urbanización de Kanpitu y 239.000 euros a la urbanización del solar de la zona de Correos para la creación de nuevos espacios públicos. Para el desarrollo de la Agenda 2030 se destinarán 149.000 euros, con un incremento del 82 %. En materia de Medio Ambiente, se prevén 102.000 euros para el Plan de Clima y Energía, con un incremento del 15 %, y 50.000 euros para la división de las aguas fecales y pluviales en el barrio de Lurdes Txiki.

En el ámbito comunitario, las actividades dirigidas a la promoción de la participación y el ocio juvenil se incrementarán en un 9 % y el Plan Municipal para la Garantía de los Derechos de la Infancia y la Adolescencia se incrementará en un 7%, manteniendo la condición de socio de la Asociación Oinherri. El departamento general de participación tendrá un incremento del 50 % para reforzar el trabajo con asociaciones y agentes y el proyecto de asambleas de distrito.

En cuanto al deporte, se destinarán 35.000 euros a la mejora de las instalaciones, 21.300 euros a nuevos equipamientos, la partida de promoción del turismo deportivo activo aumentará un 66 % y

las subvenciones para fomentar la participación de las mujeres se incrementarán un 20 %.

Finalmente, se refuerza la apuesta por la cultura, el euskera y el patrimonio. La rehabilitación del edificio Ciriza se acometerá con 300.000 euros para los primeros trabajos y 50.000 euros para la redacción del futuro proyecto. Para el diagnóstico del panorama cultural de Pasaia se destinarán 25.000 euros y la segunda fase de la rehabilitación de Luzuriaga contará con una inversión de 1,8 millones de euros. En lo que respecta a la normalización del euskera, la euskaldunización de adultos experimentará un incremento del 32 % y el trabajo de activación ciudadana se incrementará un 41 % para extenderse a toda Oarsoaldea.

Los presupuestos del Ayuntamiento de Pasaia para 2026 reflejan un modelo que pone en el centro a las personas, el cuidado, la sostenibilidad y la comunidad. Con servicios públicos más sólidos y proyectos estratégicos, el Gobierno Municipal seguirá trabajando en la construcción de un Pasaia más justo, vivo y cohesionado.

Teo Alberro Bilbao

Alcalde de Pasaia